

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2539

349/2013 DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoak daukan kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzeko dena.

Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen du. Atariko Tituluaren II. Kapituluaren, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta sozial handia kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuak artezten dituzten herri-organoak dira.

Hain zuzen ere, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 2. artikuluek honela diote:

«1.— Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

.....

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Kide-kopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita kideak izendatzea ere.

2.— Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatzerakoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari kide horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Kideetako bat estatuaren abokatua izango da, eta bestea, Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoaren ordezkari kide horietako lauk eta lehendakariak izango dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea kokatuta dagoen udalerriek Kontseiluko gainerako kideen 100eko 33ko ordezkari kide izango dute. Zerbitzugunea udalerritik batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, ordezkari kide, lehenik, Portuko Agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena ematen dion udalerritari edo udalerriei egokituko zaie; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66 honako hauen ordezkari izendatuko da: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Kideen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkari izendatuko duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorren kasuan, proposamen hori Estatuko Portuak izeneko erakunde publikoaren lehendakariak egingo du.

Administrazio Kontseiluko kideen izendapenak, lehenengo ataleko c) idatzi-zatian aipatzen denak, lau urteko indarraldia izango du. Izendapena berriro ahal izango da, hurrengo lerrokan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontseiluko kideak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, kide horiek ordezkari izendatzen dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta.»

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea eta 196/2013 dekretua apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko denaren 4garren artikulua eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Honako andre hau Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide kargutik kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari-lanak egiteko izendatu baitzuten:

Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean:

– Pilar Ardanza Uribarren andrea.

2. artikulua.– Honako andre hau Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari-lanak egiteko:

Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean:

– Itziar Garamendi Landa andrea.

AZKEN XEDAPENA

Izendatutako kide berria nor den Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek; dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 21ean,

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.